

## egunekoa

Victor Manuel Egia Astibia

(Iturralde Elkarteko kidea)

# 1978ko sanferminak. Inflexio puntua

**U**dako solstizioa, egun luzeak, gau beroak, jaia gogoan. Las-ter sanferminak, Iruñeko feri-riak.

Gure herriak, Erdi Arotik balio demokratikoetan hezia bera, errege-erreginak bertako foruen zina egitera behartzen ditu. Herria da subiranoa. Eta Nafarroa haren estatua.

Orduz geroztik etengabe eraso dio-te. Baina inoiz ez dute guztiz menderatu. Intsumisioa. «Kintarik ez!». Eta hala agertuko da bere jatorrizko esentzietan, bere jai jardunean.

Horrenbestez, 60ko eta 70eko urte-etako San Fermin jaietan herri xeheak agintzen zuen, herri xeheak ematen zituen arauak, baita —behar izanez gero— garaiko boterearen aurka ere. Eta hala, nahita eta ia modu bortitze-an, boterea, Udaltzako kasu honetan, bezperetako zeremonian —Riau-Riau— egotea galarazi zuen. Zezen-plazan ere, beti argi eta garbi egin du zezenaren alde, eta ez hura hiltzen duenaren alde. Ahularen aldeko gara, erasotzen diotenaren aldeko, eraso-tzailearen aldeko izan beharrean. Zezenaren Feria da, ez toreatzailearena. Eta errukarria pikatzailea bere ezten-kaden ondorioz odol gehiegi isurtzen bada. Eta eguzki aldeak agintzen du, beti erabakitzen du, modu logikoan batzuetan, bere boterea eta ez besterik baliatuta besteetan: nor saritu, nor zigortu, zer abestu eta zer askaldu. Botere faktikoak gaiski ateratzen dira beti:

«... hiru gauza daude Iruñean, Jaungoikoak berak ere nahi ez dituenak: alkatea, artzapezpikua eta gobernadore jauna», abesten du jendeak batere lotsarik gabe. Elizak eta haren adierazpi-deek (prozesioek, eskaintzek eta abarrek) apenas betetzen duten bigarren mailako leku bat.

Eta jendeak kantatu egiten du, dantzatu, edan. Zertarako jai egitaraua?

Eta askatasuna kanporatze horrek, intsumisioa askatze horrek ekartzen ditu Iruñera Nafarroa historiko guztiko jendeak, itsasaldekoak bezala barnealdekoak ere, Atlantiko aldekoak bezala mediterranean isurialdekoak ere, Bizkai mendebaldekotik Akitaniaraino. Biarnesak, okzitaniarrak, amerikarrak, australiarrak... askatasunaren jaia da.

Eta hori ezin dute onartu estatu zapaltzaileek, eta lehen ere ezin zuten onartu. Errotik moztu behar zen. Eta hala, 1978an, sanferminak baino hilabete batzuk lehenago, errotik moztu zuten langile mugimendua Gasteizko sarraskiarekin. Eta 1978ko uztailearen 8a iritsi zen, eta harekin inflexio puntua. Gure askatasuna armen bidez ezerezteko beste ahalegin bat.

Indarkeriaren ondoren, beldurra, autozentsura: «San Fermin, San Fermin». Gure sinboloak ezkutatzea, haienak onartzea. Kontuz, iazkoa ber-ritz gerta ez dadin. Txisturik ez, salsa modernoagoa da; *frantsesik* ez Estafetan kantatzen, globalizazio musikala-ren garaia da. Rosarena.

Kontuz, ez zikindu pikatzailea! *Clavelitos* berriz ere harmailetan. Ez politizatu festa. Iruñean beti izan da zekenketetarako zaletasun handia. Eser zaitetz; ez didazu ikusten uzten. Zintzo jokutzen baduzue, diru laguntza jasoko duzue. *Riau-Riau* kanpora! Udaltzako burujabeak barrikadarik gabe abestuko ditu bezperak. Eta Peret berriz ere, eta apirileko feriako girlandak gure plaza nagusian. Gero, plazarik ere ez da izango.

Eta euskaltzaleak kanpoaldera. Ez izan probokatzailerik! Eta txosnak hegaldaldera, hiri erditik urrun. Ez izan zerri!

Zintzoak prozesiora, eta jotara. Txaloak alkateari, gotzainari eta gobernadoreari. «Hiru gauza daude Iruñean...». Ondoren, bazter-gelara, zezenen barrabilak jatera. Oso gozo dau-de fina eta manzanilla. Haurrek, ikas dezatela lore eskaintzan. Kontuz ez bota gure santua, ez apurtu, kopia bat egin beharko baikenuke. Otoitz egin, otoitz egin anai-arrebok, eta erosi tonboloko txartelak.

Ahaztu behar da 78koa, ez da oroitzapenezko ekitaldirik egin behar. Iraganeko kontua da. «San Fermin, San Fermin».

Baina oraindik intsumisio batzuk gertatzen gara. Gogora ditzagun Noain, Amaiur, Gamazada, bai eta, nolabait, 1977ko sanferminak ere. Jarraituko dugu. Beti aurrera.

Erredakzioan itzulia

## zutabea

Oihane Enbeita



### Ibarretxe Tindufen

**M**ohamed Abdelaziz eta Ibarretxeren arteko besarkadak bazuen desertsu txiki bat bere baitan. Etorkizun hipotetiko bati buruz aritu zen Ibarretxe.

1975eko urrian, Hagako Nazioarteko Justizia Jauregia mendebaldeko Sahara deskolonizaztearen eta autodeterminazioa ahalbidetzearen alde agertu zen. Hurrengo egunean, Marokok *Martxa Berdea* delakoa aurkeztu zuen. Amerikako Estatu Batuen babesa zeukan. Hilabete amaierarako Marokok Sahara indarrez hartu zuen. Juan Carlos de Borbon orduan printze zenak Aaiunerako bisitan hau esan omen zuen: «*España cumplirá sus compromisos y tratará de mantener la paz (...) Deseamos proteger los legítimos derechos de la población saharauí, ya que nuestra misión en el mundo y nuestra historia lo exigen*». Bi aste ere igaro ez zirenean, Espainiak, Madrilén sinatutako akordio baten bidez, saharar lurraldea Maroko eta Mauritaniari eman zien. Juridikoki potentzia administratzailea izateari utzi gabe. 1976ko otsailean, Fronte Polisarioak Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoko (SEAD) konstituzioa aldarrikatu zuen Bir Lehlunen. Artean milaka errefuxiatu, lurralde okupatuetako errepresioari ihesi, eginahaletan ari ziren. Gaur egun desertuan lotuta jarraitzen dute, erbesteaturik.

Urteetan jasandako ukazioak, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen bortxaketak, arrazoitu gabeko atxiloketak, torturak, kanporatzeak eta amaigabeko gertaera krudel asko hor dira. Desagerpenei, atxiloketa zentro sekretuei buruzko datuak, prozesu judizialei zein eraiketa politikoei buruzkoak... errealitatea dira.

Tinduferra egindako bisitan, Ibarretxe jaunari ahaztu egin zitzaion sahararrek independentzia lortzeko behar *larria* dutela. Euskaldunok ere behar hori dugula. SEADeko presidentea besarkatzeak argazkirako balio zuen.

Sahararrek historikoki sufritu behar izan dituzte bete gabeko promesen ondorioak. Guk ere bai. Eta besarkadak desertsu txiki bat zeraman bere baitan.

## seiko urrea

Petxo Idoyaga



### Gure zibilizazioa

**B**i erritmo albisteen kontaktetan. Ikuskizunarena alde batetik, gertaerek ikusgarriak izan behar baitute albiste bihurtzeko. Errutina hutsarena bestetik, sasoi bateko letanien lo-eragile marmar antzekoa. Hiesari buruzko albisteak: 20 milioi lagun erail ditu azkeneko 20 urteotan, 40 milioi daude oraintxe bertan GIB birusarekin kutsatuta, horietatik ia 29 milioi Saharaz hegoaldeko Afrikan, 800.000 haurrak izan zirelarik iaz kutsaturiko 5 milioi lagun artean, 70 milioi gehiago hilko dira 2020. urterako...

Ikuskizuna eta errutina, maiz ezkutu gordetzen den hedabideen giza-eragin garrantzitsuenetako bat lortzeko: hain lasaigarria den eragin «narko-

tizatzailea». Egia da pandemia horri aurre egin liezaiokeen behin betiko biruskontrarik ez dela oraindik sortu. Baina, baita ere, 1996. urtean lorturiko botikek gaitzaren egoera egonkortu, behintzat, egonkortu dutela mendebaleko herrialdeetan. Hegoaldean ez bada horrelakorik gertatu, botikak ukatu dizkiotelako da. Eta ezin badute beharrezko botikarik hartu, haien prezioak garestiegiak direlako baino ez da. Industria farmazeutikoek diru etekinak osasunaren eta biziaren gainetik jarri dituztelako, eta nazio aberatsek bat egin dutelako horrelako krudelkeriarekin.

Horrez gain, izurriteak jota dauden herri txiroek behar dituzten osasun-

zerbitzu orokorrak sortarazteko diru laguntzak ere bete gabe gelditu dira. 10.000 milioi dolar ezinbestekoak baziren ere, 3.000 eskas bidali dizkiote azkeneko bi urteotan. «Hitz gutxiago behar ditugu, eta diru gehiago», aldarrikatu du egunotan Solidaritate Sida erakunde bateko zuzendariak.

Badaude salbuespenak. Brasilek, adibidez, «tratamendu generikoko» botikak (marka gabekoak) banatzea erabaki zuen 1996. urtean, industriaren presio guztien aurka, eta 2000. urterako hiesaz hildakoen kopurua here-nera jaitsi zen. Baina herri txiro gehienek ezin dute horrelako biderik erraz urratu.

Hiesaren XIV. Nazioarteko Konferentzia bilduko da Bartzelonan datorren astean, agian mendebaleko agintari bihotz-faltsuen ahotik hitz ederrak botatzeko. XXI. mendeko izurria hiesa dela esaten dute, baina gaitzaren birusa mendebaleko kultura da; gure zibilizazio izurritsua.

## kornerra

Mikel Elorza

### Nafarroako neurria

**A**gintariak beti izan diete begirune handia auzitegiatiko erabakiei eta, errespetuzko bide horretan, imajinatzen dut Miguel Sanz eta lagunak (eta bereziki Laguna) Madrila deika ariko direla, anaia nagusiei, ezin ote dieten Nafarroako Auzitegi Nagusiko magistratuei suspentsio arrazoiren bat aurkitu, Auzitegi Nazonalean egin zen estilora, egunotan beltz suertatu zaizkien ardiak euren larreetatik kentzeko. Nafarroako Gobernuari azpiak aldatu baitizkiete kolpe batean. Eta begirunea bai, baina neurrian. Epailak ere euskaldunen aldeko erabakiak hartzen hasi eta batek daki zein *entramado* arriskutsutan amai dezaketen. Ez dezagun ahanzi, gainera, Erresuma Zaharrean neurria ez dela hain zuzen oso zabala. Kopetak erraz belzten zaizkie. Nafarroan orain *la legionella* omen dabil. Ez dakit. *La Legion*, bere espiritua bederen, aspaldi hedatua da.

kornerra@egunkaria.com